



Azpeitiko Udala

MARIA OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza osoak **2026ko apirilaren 14an** egindako bilkuran, 2025eko aurrekontuaren likidazioaren esparruan, honako hau dioen akordioa hartu zuela:

EBAZPENAREN BERRI EMATEA 2026KO AURREKONTUAREN ALDAKETARI DAGOKIONEZ (2026-KALD000001) (2026PLAN0011)

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira, Ogasuna, Barne Antolaketa eta Langileria Batzordean espedientea aztertu ondoren, Alkatetzak 2026ko martxoaren 5eko Ebazpen bidez, 2025eko ekitaldiaren likidazioa onartu ostean, 2026-KALD-000001-00 kreditu-aldaketa espedientea onartu duela, kreditu-txertaketaren bidez aurrekontuaren gerakina txertatzeko.

Ondoren, Ebazpenaren edukia eta honen inguruan Kontuhartzaileak emandako txostena, eta Kontuhartzaileak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak eta gastu-araua betetzeari buruz emandako txostena jaso dira.

KREDITU ALDAKETAK	2026-KALD-000001-00 Kreditu txertaketak
--------------------------	--

ALKATEAREN EBAZPENA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2026-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2026-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluakako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	81.464,52
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	235.823,67
6	INBERTSIO ERREALAK	3.667.775,20
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	40.000,00



Azpeitiko Udala

TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA	4.025.063,39
---------------------------------------	---------------------

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	4.025.063,39
FINANTZAKETA GUZTIRA		4.025.063,39

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaileraren Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

-0-

Segidan Udalaren Kontuhartzaileraren txostenaren edukia jasoko da:

KREDITU ALDAKETAK 2026-KALD-000001-00 Kreditu txertaketak

Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua b) letran ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordainketa kredituen gerakinak hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan txertatu litezke, bertan adierazitako kasuetan, beti ere horretarako behar adinako finantza-baliabideak baldin badaude.

Aurrekontuaren likidazioaren ondorioz kreditu gerakinak zehaztu behar dira, besteak beste. Gainera, bertan adierazi beharko da kreditu horietatik zeintzuk betetzen dituzten txertagarriak izateko aipatutako foru arauak exijitzen dituen baldintzak.

Finantzaketa lotua duten gastuetan, horiei dagozkien kreditu gerakinak derrigorrez txertatu beharko dira, ondoko kasuetan ezik: uko egiten zaionean gastuaren gauzatzeari edo gastua gauzatzerik ez dagoenean.

Nolanahi ere, kreditu txertaketa ekitaldi honetako ekainaren 30a baino lehen egin beharko da

Bestalde, 21/2003 Foru Arauak 32.4. artikuluan ezartzen duenez, txertatzen diren kredituak txertaketaren ekitaldi berean burutu beharko dira, hau da, ekitaldi horretan bertan obligazioaren onarpen fasera iritsi beharko dute. Halaber, kreditu bera urte batean baino gehiagotan ezingo da txertatu, sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital eragiketen kasuan izan ezik.

2025eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren arabera txertatzeko modukoak diren kreditu gerakinak berrikusi ondoren, eta adierazitako araudia jarraituz, 2026(e)ko aurrekontuko 1. kreditu txertaketa proposatzen dut, 4.025.063,39 eurokoa, eta ondoko eranskinean jaso ditut horren finantzaketa eta gainerako xehetasunak.

ERANSKINA



Azpeitiko Udala

2026ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
b	1 0900.212.171.00.01 2025	PARKE ETA LORAT.MAKINERIA MANT.	923,24
b	1 0700.227.920.00.07 2025	AHOLKULARITZA TEKNIKO JURIDIKOA	3.630,00
b	1 0600.211.231.40.01 2025	BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK MANT.	12.691,30
b	1 0301.211.323.20.01 2025	KASTOLA MANTENTZEA	1.951,35
b	1 0301.226.320.00.99 2025	BESTE GASTU BATZUK, HEZKUNTZA	2.722,50
b	1 0900.211.133.00.01 2025	APARKALEKUA MANTENTZEA	1.774,77
b	1 0900.212.134.00.01 2025	KALEKO IGOGAILUAK MANT.	236,78
b	1 0900.212.165.00.11 2025	KALEKI ARGITERIA	841,07
a, b	1 0900.211.920.00.01 2025	UDAL ERAKUNTZAK MANT.	19.613,88
a, b	1 0900.215.920.00.01 2025	INFORMATIKA EKIPOAK	7.377,97
a, b	1 0900.210.153.20.01 2025	KALEAK ETA BIDEAK MANT.	16.661,49
a, b	1 0201.227.150.00.03 2025	TXOSTENAK ETA ZARATA NEURTZEAK	5.808,00
a, b	1 0500.211.342.00.01 2025	KIROLO ERAK.MANTENTZEA	4.791,60
a, b	1 0500.211.342.00.02 2025	IGERILEKUA ETA KIROLEDEGIA MANT.	2.440,57
b	1 0201.480.152.20.02 2025	IRISG.ETA EFIZ.ENERGETIKOA	61.624,31
b	1 1100.480.152.30.02 2025	ALOKARU LAGUNTZAK	11.670,00
b	1 0301.481.326.00.01 2025	TRANSFARR.BERTSOLARITZA	5.152,78
a, b	1 0600.480.231.00.02 2025	DIRULAG.GIZARTEKINTZA	6.685,25
a, b	1 1100.471.241.00.01 2025	TRANSFARR.EKONOMIA SUSTAPENA	100.297,78
a, b	1 1100.471.241.00.02 2025	TRANSFARR.1.SEKT.SUST.ETA MERK.	50.393,55
a, b, d	1 0201.601.153.20.01 2025	ETXE-ALAI	620.791,46
a, b, d	1 0201.601.153.20.05 2025	EUSKALERRIA AISIALDI-GUNEA	180.000,00
b, d	1 0201.601.153.20.07 2025	FRONTOI TXIKI INGURUA	100.000,00
b, d	1 0201.601.153.20.09 2025	BARRENETXE URBANIZATZEA	32.633,38
a, b, c, d	1 0201.601.153.20.10 2025	URRESTILLAN URBANIZATZEA	300.000,00
a, b, d	1 0201.601.153.20.11 2025	IGERILEKUKO BUS GELTOKIA	132.000,00
d	1 0201.601.153.20.98 2025	BIDEAK	25.936,67
b, d	1 0201.601.153.20.99 2025	BESTE URBANIZAZIO BATZUK	192.989,13
b, d	1 0201.601.153.30.01 2025	HERRI EKIPAMENDUA	256.610,19
d	1 0201.642.150.00.01 2025	PLANEAMENDUA	55.000,00
b, d	1 0201.643.150.00.01 2025	OBRAK TXOSTENAK ETA PROIEKTUAK	167.043,95
d	1 0201.623.165.00.02 2025	HERRIKO ARGITERIA	24.931,34
b, c, d	1 0201.622.323.20.02 2025	IZARRAITZPE IKASTOLA	56.724,35
b, d	1 0201.622.342.00.02 2025	IGERILEKU ATARIA	300.000,00
b, d	1 0201.622.342.00.03 2025	KIROLO INSTALAZIOAK	150.376,59
b, c, d	1 0201.644.414.00.01 2025	LANDA LURREN MUGAK DIGITALIZ.	49.875,00
b, d	1 0201.622.920.00.02 2025	UDAL ERAKUNTZAK	55.026,56
b, d	1 0201.622.920.00.03 2025	UDAL TZAINEN BULEGOAK	453.680,91
b, d	1 0201.622.920.00.06 2025	MATXINADAKO LOKALA	343.820,54
d	1 0900.626.920.00.01 2025	INFORMATIKA EKIPO ETA PROGRAMAK	27.116,05
b, d	1 1300.601.414.00.01 2025	BASERRI BIDEAK	143.219,08
b, d	1 0201.780.153.20.01 2025	URBANIZAZIOENTZAKO EKARPENAK	40.000,00
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA			4.025.063,39

KODEEN AZALPENA

- Aurreko ekitaldiko azken hiru hilabetean onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
- Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
- Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
- Kapital eragiketen kredituak.

2026ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
b	2 0000.870.000.00.02 2026	FINANT.LOTUA DUTEN GAST.DIRUZAINZTA GER.	4.937,50
a	2 0000.870.000.00.01 2026	G.O.DIRUZAINZTA GERAKINA.	4.020.125,89
FINANTZAKETA GUZTIRA			4.025.063,39

KODEEN AZALPENA

- Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- Sarrera konpromisoak. d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.
- Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.



Azpeitiko Udala

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2026. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa

* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDIA

1. AZPEITIA

Iraurgi Lantzen, S.A. ez da sartu, 2025eko itxiera onartu gabe dutelako.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2026. urtean:

Defizita:	3.793.484,43
DGarekin finantzatutako defizita:	3.793.484,43

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkuloa

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	28.308.294,70
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	32.101.779,13
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	-3.793.484,43

DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak): 4.025.063,39

DGak finantzatutako defizita: 3.793.484,43

Finantzaketa ahalmena / premia, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako 0,00

2026. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, berez, toki entitate honek ez luke beteko aurrekontu egonkortasunaren 2026. urterako helburua. Horren arrazoia, ordea, diruzaintza gerakina erabili izana



Azpeitiko Udala

denez, plan ekonomiko finantzarioa egiteko obligazioaren ondorioetarako, defizitaren helburua betetzat ematen da (1/2013 FAREN 5.3 art. eta Jarraibidearen 1.1 erregela).

Finantza iraunkortasuna

2026-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2025. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,83

Kalkulua egiteko, 2025-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2026. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2026. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2026. urterako ezarritako helburua zor bizia %110 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2026. urterako helburua.

Gastuaren araua

2026. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	29.309.553,60
Gastuaren muga:	25.513.006,94
Diferentzia:	3.796.546,66

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2026	2025
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	32.101.779,13	27.703.059,30
Zorren interesak:	24.051,53	15.633,55
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	2.768.174,00	3.037.177,50
Gastu konputagarria:	29.309.553,60	24.650.248,25

BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %2,6	862.758,69
Arau aldaketen eragina:	0,00
Gastuaren muga:	25.513.006,94

Gastu konputagarria - Gastuaren muga: 3.796.546,66

Hori dela eta, toki entitate honek ez luke beteko 2026. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2026. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren eta zorraren helburuak betetzea, baita gastu araua ere. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota,



Azpeitiko Udala

likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkeztu denetik kontatzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita.

Segidan Udalburuak Ogasun alorreko batzordeburua den Leire Goenaga Uzkuduni hitza eman dio.

Zinegotziak hitza hartu eta adierazi du Kontuhartzaileak 2026ko martxoaren 23an egindako Ogasun Batzordean 2025eko ekitaldiaren itxiera aurkeztu zuela.

Horren harira, hitzez hitz azaldu du “2025 urtea aurreikuspen batzuekin hasi genuela: 26.732.123,29 euroko aurrekontuarekin. Urtean zehar hainbat inbertsio indartu eta berri proposatu ziren eta zerbitzu publikoak zabaltu eta kalitatezkoak izateko hainbat gastu partida igo eta sortu ziren. Udaleko behin betiko aurrekontua 36.563.700,01 izan da.

Urteko kontuen itxierak, udalaren egoera ekonomikoaren inguruko datuak eta adierazle asko erakusten dizkigute. Orain aipatuko ditut datu esanguratsuenak:

1.- Aurreikusitako gastuen gauzatzea %79,97koa izan da, gauzatze maila altua

- Zerbitzuen kostuak nabarmen igo dira eta eragin zuzena izan du gastuetan. Kalitatezko azpiegitura eta zerbitzu publikoak bermatzeko beharrezkoak izan dira.

- Langileria gastuen gauzatze maila oso altua izan da. Alde batetik, urteko soldaten %2,5 + 0,5 ko igoera eta bestetik, hainbat lanpostuetan soldatak eguneratu dira, balorazioen ondorioz. Bestalde, epe baterako hainbat langile kontratatu dira eta bajak ordezkatu ere bai.

- Inbertsio errealei dagokionez, urtearen bukaeran gauzatzea %48,21 izan da eta urte bukaerarako %80a esleituta zegoen, guztira 7.463.822 euro. (2024 ekitaldian baino ia 2 miloi euro gehiago)

Aurreikusitako ia inbertsio guztiak urte amaierarako esleitu dira, eta 2026an gauzatuko dira: Adb. Etxe Alaiko urbanizazio lanak, Euskalerrria aisialdi gunea, Frontoi txiki ingurua, Igerileku ataria eta bus geltokiak, Urrestillako urbanizazio lanak, Haur parkeak Garmendin eta Urbitarten.

Laburbilduz, inbertsio gehienak urte amaieran esleituta daude eta aurreko urtean esleitutakoak amaitu dira. Beraz, gastuen gauzatzea altua izan da.

2.- Aurreikusitako sarreraren gauzatzea %80 izan da.

Sarreraren aurreikuspenak ondo bete dira. Zerga eta tasen aurreikuspenak bete dira eta Foru Fondoaren kopurua aurreikusitakoa baino %4,32 altuagoa izan da.



Azpeitiko Udala

Ondorioz, esan daiteke 2025eko aurrekontuaren gauzatze maila altua izan dela.

Sarrera eta gastuen arteko diferentzia, diruzaintza gerakina kontutan izanda, 3.457.631 eurokoa izan da. Aldiz, diruzaintza gerakina kontutan izan gabe, -347.117,70

Eta, diruzaintza gerakinari dagokionez. Gerakina guztira 17.616.730,14 eurokoa da. Hemendik zati bat hainbat konpromisori lotua dago eta beraz, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 12.520.932,67 eurokoa da momentu honetan.

3.- Udaleko kontuhartzaileak egindako txostenean jasotzen da Azpeitiko Udalak aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzen dituela.

Txosten honetan Azpeitiko Udalaren zor bizia %1,66koa dela jasotzen da. Udalak momentu honetan mailegu bakarra dauka amortizatzeko, 2027 urtean likidatuko dena.

Guzti hori kontuan izanik, zinegotziak azaldu du Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa ona dela baieztatzen duten datuak daudela. Horrek aurrera egiteko egonkortasuna eta sendotasuna ematen diola Udalari adierazi du, eta 2030 Plan Estrategikoan jasotako proiektuak gauzatzeko berme handia dagoela nabarmendu du.

Horrez gain, azken urteetan baliabide publikoak eraginkortasunez eta arduraz kudeatu direla adierazi du, eta aurrerantzean ere ildo beretik jarraitzeko konpromisoa eta betebeharra daukagula esan du, zuhurtzia handiz jokatzuz, horrela eskatzen duelako gaur egungo ziurgabetasun handiko egoera sozioekonomikoak.

Eta horrela jaso gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, dokumentua elektronikoki sinatu den datan.

O.E.
ALKATEA,



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026PLAN0011-Ziurtagiria/Ziurtagiria (AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA)